



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka  
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY  
2023/11/20



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka  
MARIA JOSE LARRYOZ ARIZTEGUI  
2023/11/20



LESAKAKO UDALA  
Plaza Zaharra, 1  
31730 Lesaka (Nafarroa)  
NIF P3115200B  
Telf. 948637005  
www.lesaka.es  
udala@lesaka.es

NIF: P3115200B

SECRETARIA GENERAL

## ALKATEAREN EBAZPENA, DINAMIZATZAILE TURISTIKO-KULTURALA LANPOSTUA MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO EPAIMAHAIA IZENDATZEN DUENA. 18368M ESPEDIENTEA.

Alkatearen 216/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 26koa; urriaren 31ko 509/2022 Ebazpenak aldatua -2022ko 228. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 17koa-) onetsi da 2022rako lan publikoaren eskaintza, ezartzen dituen enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeari jarraikiz.

Osoko Bilkuran 2022ko azaroaren 16an hartutako erabaki baten bidez, toki erakunde hau partez atxikitzen zaio uztailearen 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze-prozesuak gauzatzeko, Nafarroako Administrazio Publikoetan, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

Lesakako alkatearen abenduaren 14ko 577/2022 Ebazpenaren bidez onesten da **Dinamizatzaile turistiko-kulturala** lanpostu hutsa merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.. Ebazpen hori 2022ko abenduaren 30eko 263. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ale berezian.

5.1. puntuaren arabera, kalifikazio epaimahaia deialdi onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko da. Kide-kopurua bakoitia izanen da, hiru gutxienez, eta horien ordezkoren kopuru bera izendatu beharko da. Izendapen hori argitaratuko da deialdiaren ezaugarrien taulan zehazten den eta toki erakundearen atarian egonen den deialdiaren web fitxan.

Ondorioz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

1.) Lesakako Udaleko dinamizaitzaile turistiko-kulturala lanpostua (B maila) egonkortzeko eta finkatzeko posturako epaimahaiko kide hauek izendatzea:

**-Lehendakaria:** Ladis Satrustegui Alzugaray, Lesakako Udaleko alkatea.  
Ordezkoa: Eneko Fernandez Maritxalar, Lesakako Udaleko zinegotzia.

**-Bokala:** Mikel Gotzon Ortiz de Urbina Olaetxea.  
Ordezkoa: Estibaliz Iparragirre Madariaga, Lesakako Udaleko langileen ordezkaria.

**-Idazkaria:** M. Jose Larrayoz Ariztegui, Lesakako Udaleko idazkaria.  
Ordezkoa: Miguel Jose Belarra Tellechea, Berako Udaleko Idazkaria.

2.) Oinarrien arabera, epamahiak aholkulari espezialistei izendatzeko aukera ematea.  
3.) Ebazpen hau epamahiakideei jakinaraztea eta Udaleko web orrian argitaratzea.



LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA AV2Q EPA2 DQFP MUN7

Resolución Nº 513 de 20/11/2023 "Dinamizatzaile turistiko-kulturala- epamahiaren izendapena." - SEGRA 11676

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedelectronica.lesaka.es/> 1tik 1 orrialdea